

[a]aztiker
soziologia ikergunea

2017ko URTARRILEAN

**ZALDIBIKO ERABERRITZEA LANTZEN:
HERRI HAUSNARKETA 2016**

ONDORIO NAGUSIAK



Zaldibiako Udala

[a]

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	MEODOLOGIA.....	4
	2.1. HAUSNARKETA GARATZEKO ERABILI DEN EGITURA SOZIALA JARRIAN AZALTZEN DENA IZAN DA:	4
	2.2. EGINIKO LAN DINAMIKAK ETA EKINTZAK:	5
3	ONDORIOAK.....	7
	3.1. AURRERA BEGIRA, ETA 2017AN EXEKUZIO BIDEAN JARTZEKO PORPOSATZEN DIREN BI IDEI NAGUSI DAUDE ERABATEKO ADOSTASUNA DUTENAK:	8
	3.2. ÑABARDURAK DITUZTEN PROPOSAMENAK.....	9
	3.3. UDALARI 2017AN EXEKUTATZEKO EGITEN ZAION PROPOSAMENA.....	11



1 SARRERA

Jarraian aurkezten dugun txostenean, Aztiker Soziologia Ikerguneak aurkezten ditu 2016ko udazkenean zehar eginiko herri hausnarketaren ondorio nagusiak. Aipaturiko hausnarketa Udalak bultzatu du, bertan dauden bi taldeen adostasunaren oinarrian. Hausnarketaren helburua izan da herritarren gogoetak eta ekarpenak jasotzea Zaldibian egin behar diren eraberritze lanak zehazteko. Horretan, plazaren eraberritzeak izan du pisu handiena, bertan kokatzen diren behar eta elementu nagusiekin batera (estalpearen inguruko hausnarketa, eta Udal eraikin berriaren inguruko hausnarketa).

Txosten honek aipaturiko hausnarketaren ondorio nagusiak jasotzen ditu, honela:

1-Sarrera: atal labur hau, dokumentua kokatzen duena.

2-Metodologia: Hausnarketak garatu duen metodologia azaltzen du.

2.1. Hausnarketa garatzeko erabili den egitura soziala

2.2. Eginiko lan dinamikak eta ekintzak

3-Ondorio nagusiak: hausnarketan zehar adostasun maila handiarekin sortu diren edukiak eta aurrera eramateko proposamenak.


Ñabardurak eta eztabaida gaiak: azpi atal honetan jasotzen dira ñabardurak dituzten gaiak, eta horietan sortu diren eduki edo proposamen aukera ezberdinak.

Horrela, dokumentuaren helburua da **Udalak zehazki kontuan izan dezan hausnarketak izan dituen ondorio nagusiak, eta instituzioak agintzen duen bidearen bidez erabakiak har ditzala aferaren inguruan, eta 2017rako proposatzen den kronograma egikari** dezala horrela dagokion baliabideen bidez.

Amaitzeko **gure laudorio eta aitortza handiena hausnarketaren parte izan diren Zaldibiako herritar bakoitzari, eta guzti-guztiei**, haiek egin baitute errealitate txostenean jasotzen diren edukiak. Azpimarratu ere pertsona horiek izan duten jarrera dinamiko eta malguari esker sortu direla talde edukiak eta ondorioak, batzuk adostasun maila handiarekin, eta besteak berriz ñabardura edota ikuspegi ezberdinarekin badira ere, landutako edukiak izan dira, eta kontuan hartuak izan behar dute. Doakizuela beraz zaldibiarrogi gure zoriona eta talde lana egiten jarraitzeko hauspoa.

2 MEODOLOGIA

2.1. HAUSNARKETA GARATZEKO ERABILI DEN EGITURA SOZIALA JARRIAN AZALTZEN DENA IZAN DA:



1. **UDAL TALDEAK-KOORDINAZIO MAHAIA:**

Zaldibiako Udalean egun dauden bi taldeek bere osotasunean. Bi taldeen artean etengabeko komunikazioa eta talde lana izan da. Horretan, partaidetza prozesuarekiko akordio politikoa izan dute, eta horrela zabaldu dute herritarren artean, prozesuaren berme gisan. Era berean, modu dinamiko eta iraunkor batean baloratu dute partaidetza bera, bere balizko indarguneak/ahulguneak kokatuz, eta horiek hobetzeko proposamenak eta bitartekoak landuz. Horrela, prozesuaren arlo teknikoaren jarraipena egin da, eta beharreko zerbitzu eta azpiegitura eskaintza lotu da. Azkenik, udal teknikariek koordinazioa eta zubi lanak egin dituzte, bermatzeko hausnarketan ikuspegi eta irizpide-muga teknikoak ere presente egon zitezten (Udal idazkaria, Udal arkitektoa, zerbitzu sozialetako langilea...).

2. **TALDE ERAGILEA:**

Herri dinamika irekia martxan jarri aurretik hasi da lanean. Prozesuaren diseinu zehatza gainbegiratu eta onartu du lehenik. Segidan, Talde Eragileak tailer zehatza egin du Plazaren gaineko aktuazio aukeren azterketa egiteko, eta proposamen zehatza sortzeko, Herri Jardunaldietan eztabaidatzeko edota osatzeko/moldatzeko moduan. Urtea amaitu aurretik eta Herri Dinamika egin ondoren, Talde Eragileak bere bigarren tailerra egin du. Horretan, Herri Jardunaldietan sortutako edukiak aztertu ditu. Horrekin batera, eduki horiek alderatu ditu Talde Eragileak berak lehen tailerrean eginiko proposamenekin. Eduki horien guztien oinarrian, oinarrizko adostasunak jasotzen dituen Plazarako egitasmoa sortu du, eta ezadostasuna edo zalantza duten eduki/elementuen zerrenda egin du, horiek lantzen jarraitzeko. Azkenik, Plazaren eraberritzeari begira, 2017an zehar landu daitekeen eskema ere onartu du.

Talde eragilea osatu duten pertsoneri dagokionez, Udal taldeek aurrez adostutako partaideak izan dira, eta horretan bermatu dira honako irizpideak:

- Lan talde horretan, aurreko partaidetza dinamiketan izandako pertsonak izatea (2015eko dinamikan).
- Genero ikuspegia izatea.
- Aniztasun ideologikoa, jatorri aniztasuna eta adin aniztasuna ere
- Herri Jardunaldian interesa azaldu diren pertsonak ateak irekitzea.

3. **ZALDIBIAKO HERRITARRAK OROKORREAN, HERRI JARDUNALDIAK** **DEIALDIAN:**

Zaldibiako herritar denak sartzen dira xede talde honetan, bere aniztasuna kontuan izanik: emakumezko gizonezko; haurrak, gazteak, helduak, adinekoak; kaskoan bizi ala landa gunean bizi; jatorri eta ideologia ezberdinen arabera, e.a. Herritar denak izan dira deituak modu orokorrean, eta horretarako komunikazioa egin da:

- o Prentsa bidez, kronikak, udal aldizkaria, hitza.
- o Karteldegia, ohiko lekuetan
- o Zuzeneko harremanak eta harreman sareak .

Horrez gain, eta aurreko hilabeteetan izan den lanketa kontuan izanik, orduan izandako partaideei deialdi zehatza eta berezia egin zaie (datuak gordeta zeuden neurrian eta moduan).

2.2. EGINIKO LAN DINAMIKAK ETA EKINTZAK:

Egitasmoan adostu bezala, eta aurreko puntuan zehazturiko egitura sozialaren baitan, honelako lan dinamikak eta ekintzak egin dira hausnarketa prozesu honetan:

	UDAL TALDEKO KOORDINAZIO MAHAIA	TALDE ERAGILEA	HERRI JARDUNALDIA
URRIA	<p>4an: egoeraren eta, egitasmo berriaren aukeren azterketa.</p> <p>7an: partaidetzarako aholkularitza eskema onartzea. Bi taldeen akordioaren zirriborroa lantzea</p> <p>14an: Bi taldeen akordiorako testua onartzea. Prozesurako egitura sozialerako proposamenak lantzea.</p> <p>25ean: Talde eragilea definitu; Talde eragilerako partaideekin zuzeneko harremana egiteko lan banaketa adostu.</p>		
AZAROA	<p>14an: Talde eragilearen lehen tailerrerako diseinua onartu; beharrezko euskarriak definitu eta koordinatu Udal teknikariek (arkitektoarekin).</p> <p>29an: Talde eragilearen emaitzen azterketa egin; Herri Dinamikarako diseinu definitiboa landu eta onartu; Udal teknikariek (arkitektoarekin), aukera eta muga teknikoen lanketa egin; euskarriak adostu.</p>	<p>7an:Prozesuaren aurkezpena eta lan dinamiken aurkezpena (azaroan eta urrian zehar egitekoak).</p> <p>21an: Talde eragilearen 1. Batzarra: Udal Ekipamenduak biziberritzeko planaren aurkezpena; Plazaren eraberritzerako aukeren azterketa eta proposamena lantzea</p>	
ABENDUA	<p>12an: Herri Jardunaldiak baloratu, eta Talde Eragilearen 2. Bilera adostu; beharrezko euskarriak adostu (aholkularitza eta laguntza, <i>EHU+Xotil</i>).</p> <p>21an: Azaroa-abenduan zehar eginiko prozesuaren ondorioak bilduko dituen dokumentua adostu; 2017rako aholkularitza eskemaz hausnartu.</p>	<p>14an: Talde Eragilearen 2. Batzarra (jardunaldian partaide izandakoei dei irekia ere).</p> <p>Herri dinamikaren ondorioen azterketa; 2017rako proposamen zehatza onartzea.</p>	<p>3an: Herri Jardunaldiak: -Udal Ekipamentuen eraberritzerako planaren aurkezpena (2015eko herri hausnarketaren ondorioetan oinarrituta).</p> <p>-Plazaren eraberritzerako egitasmo aukerak aztertu, eta Talde Eragileak lehenetsitako egitasmoa aztertu;</p> <p>-Hausnarketaren ondoren, plazaren egitasmorako aukera erakargarriena kokatu (elementu zehatzak, zerbitzu zehatzak, eta horien kokapen lehentasuna).</p>

3 ONDORIOAK

2016ko urrian, azaroan eta abenduan zehar eginiko ondorioei dagokionez, bi dimentsioen arabera azalduko ditugu:

- ✓ Prozesuaren garapenak berak utzitako eta garatutako ondorioak, **kultura politikoari** dagozkionak :
 - Udal taldeen arteko **akordioa eta elkarlana**: gobernantza edo kudeaketa eskama irekia eta elkarlanekoaren elementu oso garrantzitsua dena.
 - Udal **ordezkarien, teknikarien eta herritarren arteko** hausnarketa, komunikazioa eta koordinazioa egitasmo garrantzitsu bat definitze bidean.

- ✓ Prozesuaren garapenak berak **sortu dituen edukiak**:

- PLAZAREN ERABERRITZEAK JASO BEHAR DITUEN ELEMENTUAK/ESPAZIOAK/GUNEAK:

Bai Talde eragilearen lanketaz, baita herri jardunaldiaren lanketaz, honako guneak/elementuak behar direla plazan aipatu da:

- *Udal eraikin berria (Hogarra eta 3. Adinerako bestelako zerbitzuak/jarduerak)*
- *Estalpea*
- *Parkea*
- *Gune zabala*
- *Terrazetarako tokia*
- *Frontoia eta kirol espazioa*
- *zerbitzuak, erabilera anitzekoak...*
- *Kultur eraikinak (espazioa)*

- HERRIAN BEHAR DIREN ZERBITZUAK ETA PLAZAN KOKATU BEHAR DIRENAK:

Plazan kokatu behar den Udal eraikinak jaso behar dituen zerbitzuei dagokionez, jarraian azaltzen direnak lehenetsi eta adostu dira (berdez adieraziak taulan).:

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	KOKALEKUA
UDALA Bulegoa	PLAZAN
GIZARTE ZERBITZUAK Hogarra, Berdintasuna eta emakumeen lantzeko zerbitzua	PLAZAN
ADINEKOEN ZAINTZA Eguneko zentroa, jangela soziala, gimnasioa, pelukeria-barberia, podologoia, masajista-osteopata, jarduerak	PLAZAN (ARTXANBERRIN)
KULTURA Kultur etxea, liburutegia, musika gelak	PLAZA-KARREANEN (ARTXANBERRIN)
ERABILERA ANITZEKO ARETOAK	PLAZAN ETA BESTE AHALIK ETA GUNE GEHIENETAN
GAZTERIA Gazte- lekua, Gaztetxea	BESTELAKO GUNEETAN: Artxanberri, Mediku etxean, Plaza inguruan, Itoitz etxean, dagoen lekuan
HEZKUNTZA Haur eskola, jangela	ESKOLAN EDO INGURUETAN (ARTXANBERRIN)
KIROLA (ez soilik plazan, baina plazan ere bai aukeran)	FRONTOIAN EGOKITZAPENEKIN FUTBITO ZELAIA ESTALI

3.1. AURRERA BEGIRA, ETA 2017AN EXEKUZIO BIDEAN JARTZEKO PORPOSATZEN DIREN BI IDEI NAGUSI DAUDE ERABATEKO ADOSTASUNA DUTENAK:

ADOSTASUNAK

- **ERAIKINA:** Plazan, aurrez zehazturiko zerbitzuak (berdez) jasotzen dituen eraikina behar da, Udal eraikina bera izango dena.
 - Lehenesten da kokapena Kultur-etxe zaharraren espazion hasita. Era berean, eskatzen da ongi aztertzea dimentsioak, izan ez dadin "izugarritzko" eraikina. Horrela, baloratzen dira ezinbestekotzat plazako eraikinean honakoak:
 - Udal Bulegoak orokorrean (politikoak, teknikoak)
 - Gizarte zerbitzuetarako bulegoa (berdintasun eta gizarte zerbitzurako bulego teknikoak):
 - Adinekoentzat zerbitzuak eta zaintza egitasmoak (Hogarra, jangela soziala, podologoia, masajista/osteopata, ileapaindegia, jarduera gela...).
 - Erabilera anitzeko espazioa-k
 - **JANGELA SOZIALA-HAURREN JANGELA:** egitasmo gisan oso interesgarri eta erakargarria ikusten da:
 - Transmisioa eta generazio ezberdinen arteko harremanak sustatzeko.
 - 3. Adinekoei, zaintza eta proiektu soziala ere badelako era berean: jasoko lukete, eta eman ere egingo lukete.
- **ESTALPEA:** eguneroko jarduerak burutzea jolasleku, atsedeen/egoteko gune giro txarrean. Estalpearen funtzio puntualagoak honakoak dira: festak eta ekitaldiak (herrirako). Bestelako ez ohiko ekimen oso puntaletarako dimentsio handiagoak behar badira momentuan erantzungo zaie behar horiei.
- **ELIZAKO SALOIAK:** Lehenesten da Udalak Elizarekin negoziatze prozesua garatzea saloiak desagerrarazteko (plazarako espazioa eta itxura hobetuz, dauden baldintzetan arriskua ere badagoelako). Horretan, norabide aukerak lirateke:
 - Jatorritzko eliza egiturara bueltatzea, eta magaletan estalpe estua sortu berriro.
 - Saloiak kenduta, horrelaxe uztea espazioa.
- Argi geratzen da horko zein frontoiko edozein interbentzioa erabat lotuta dagoela **izendapen historikoari**.

ESKATZEN DA: **65 urtetik gorako herritarren azterketatxo bat egitea:** zenbat diren, bakarka edo familian bizi ote diren... Lanen bat, aukera emango duena errealitatearen gainean hausnartzen jarraitzeko.

ESKATZEN DA: **haurren ikuspegia jasotzeko haiekin ere lan dinamikak** egitea gaiaren inguruan, haiek izango baitira ere protagonista eta erabiltzaile garrantzitsuak espazioan. Horretarako eskatzen da aztertzea eskolaren bidez lanketaren batzuk egitea haurrekin, haiek herri egitasmo honen jakitun eta partaide izan daitezen.

Horrela, amaitzeko azpimarratzen da **plazaren eraberritze integralaren** ideia, hots elementu bakoitzaren obraren exekuzioa hasterako, garbi izatea proiektu osoa eta norabide horretan lana egitea. Betiere onartzen da bidean sor daitezkeen gorabeherak (izendapen historikoa kasu) **proiektuaren dinamikotasuna** kontuan izan behar dutela.

3.2. ÑABARDURAK DITUZTEN PROPOSAMENAK

Plazaren eraberritze integralari dagokionez, honako zalantzak edota ñabardurak sortzen dira:

ESTALPEAREN KOKAPENA:

1.Egungo frontoian: Ideia honek erabilera praktiko baten ikuspegitik du erakartasun handia hainbat herritarrentzat (egunerorako nahiz ekintza puntualetarako ere). Honek dituen trabak honakoak dira:

Elizaren izendapen historikoak eragingo lioke frontoiari ere, horretan egiten diren interbentzio denei ere.

Frontoiaren magaleko hainbat bizilagunek eragozpena dute, haien etxebizitzetan eragingo lukelako estalpe horrek (bistan, argitasunean, e,a,)

2.Egungo udal eraikinaren espazioan eta eraikin berria izango denari erantsita/pegatuta: Aukera honetan argi ikusten da neguan arriskua dagoela plazan jotzen duen **eguzki apurra desaprobatzeko, eta gaia oso kontuan hartzekoa dela iruditzen da.** Ideia hutsean soluzio "Politatzat" jotzen bazen ere, maketan ikustean beldurra sortzen da hiru norabideetan:

-Eguzkia, argia eta beroaren desaprobatxamendua. (*estalpe trasluzido batek soluziona dezake? Adituekin aztertu beharra gai hau*).

-Plaza sarrerak oso eraikin "mardularekin" geratzea.

-Haurren eguneroko jolaserako espazioa ere izanik, karreteratik gertuegi geratuko litzateke. Horretan, soluzioa eman beharko litzaioke plaza-karretera espazioa ongi bereizita eta babestua geratzeari.

ERAIKIN BERRIAREN DIMENTSIOAK:

- 1- 19X19 dimentsiokoa izatearekin ziurtatzen dira espazioak eta zerbitzuak kabituko liratekeela, baina era berean eraikin mardulegia geratzeko arriskua ere ikusten da. Eskatzen da kontuan hartzea dimentsioak, edota agian soluzioa ematea horri eraikinaren forma ezberdinak aztertuz, ahalik eta egokiena bilatuz plazaren eraikin beharra eta aldi berean espazio zabalaren nahiari oreka emanaz.
- 2- Proposatzen da ere kontuan hartzea honako ideia: eraiki orain udal eraikin txikiagoa kultur-etxe zaharraren espazioan, eta ez deskartatu gerora beste eraikin bat sortzea (oraingo udala dagoen lekuan), adibidez zerbitzu sozialetarako (*horretan, eguneko zentroa kokatzeko aukera geratzen delarik*).

ADINERAKO ZERBITZUAK:

Erabateko adostasuna du 3. Adinak espazioak eta erabilera izan behar duela plazan, eta hori garrantzitsua dela. Ñabardurak eta ikuspegi ezberdinak daude:

-Eguneko zentroa :

-Plazan koka daiteke, edo

-Beste eraikin batean, plazatik gertu. Ez da garbi ikusten eguneko zentroa bera plazan egotea. Garbi dago 3. Adinekoentzat zerbitzuak eta jarduerak erdigunean, baina honelako zentro batek "zaintza bereziak" izan ditzakeen neurriak, ez ote den diskretuago beste inon, erdigunetik gertu baina beste kokapen batean.


-Bestelako zaintza zerbitzuak, proiektuak eta programak, eskatuko luketeenak Hogarraren egungo eskaintzak eta funtzioak zabaltzea eta Hogarraren proiektua osatzea/eguneratzea (jarduera gehiago, emakumeentzako jarduera-espazioak, jangela soziala...).

BEHIN BEHINEKO ESTALPEA:

Proiektu osoa garatzen den bitartean, estalpe probisionala izan plazan, agian alokatua eta mugikorra. Horrek lagundu dezakeelako estalpe finkoa izango den horren kokapena ere argitzen, edota horren benetako beharra argitzen.

3.3. UDALARI 2017AN EXEKUTATZEKO EGITEN ZAION PROPOSAMENA

Adosten da Udal arduradunei proposatzea 2017rako honako lan ildoak garatzea:



Lizitazioari dagokionez, eskatzen da, **lehiaketara eramatea zalantzak eta ñabardurak, lehiaketa beraren bidez soluzioak** eskatuz horretaz arduratuko diren profesionaleri.

2017an zehar ere Udalak garatuko du harremana Elizarekin akordio bat lortze aldera saloiak-plaza espazioaren aferaren inguruan.

Urte osoan zehar, lanketa hori egiten ari den bitartean, **herritarrekin kontrasterako saio batzuk egitearen garrantzia azpimarratu da**. Horretarako, Talde Eragilea hainbat aldiz elkartzea planteatu da: irizpide zehatzengatik hautatuta, prozesuari jarraipen finkoa egingo diotela bermatuko duten pertsonak izaki. Aztertu eta kontuan izan ere beste ideia bat dela lehiaketan aukera ezberdinak sortzea eta horien artean kontsulta bidez aukeratzea.